

MEATZARITZA ETA BESTE BALIABIDE GEOLOGIKO BATZUK MINERÍA Y OTROS RECURSOS GEOLÓGICOS

Bizkaia

Güeñes

Zaramillo

SARATXOKO MEATZE GUNEA. ZARAMILLOKO MEATZE PORTUA COTO MINERO DE SARATXO. PUERTO MINERAL DE ZARAMILLO



Saratxoko Meatze Gunea, Gueñesen, Lezama Legizamon familiak ustiatu zuen. Meatze gune horri zerbitzu emateko eraiki zen Zaramilloko meatze portua, egun jautsita dagoena. Meatze portua Bilbo-Santander trenbidearen ondoan dago kokatua, Gueñes eta Barakaldoko udalerriekin muga eginez. Bai trenbidea eta bai meatze portua leku horretan Kadagua ibaiak egiten duen bihurtu egokitzeko. Mea, bada, Zaramilloko meatze portutik jaso eta Bilbo-Santander trenbidearen bitartez garraiatzen zen trenbide horrek Zorroztako kaietan erabiltzen zuten kargalekuraino. Meatze portua 60ko hamarkadaren amaierara arte erabili zen.

Mea porturaino jaisteko kable bakarrek balde leño bat zegoen, 1.000 metroko luzerakoa eta eguneko 55 tona garraiatzea ahalbidetzen zuena. Portuak mea tren bagoietan kargatzeko balio zuen eta harrizko egitura du, 130 metroko luzerakoa, harlanduz nahiz harlangaitzez egina eta apur bat ezponda erakoa. Kargarako tunel baten itxura du, 3 metro dituzte zabalean eta 4 altueran, eta bi horma paralelok mugatzen dute. Horma horietako batek hamar bako ditu, harlanduzko dobelek inguratzen duten erdi puntuko arku banarekin. Bako horietatik, kargatze lanetan langileak barrura sartzen ziren eta tunela aireztatzen zen. Mea kargatzeko, sapaian hormigoizko gangatila batzuk zeuden metalezko nerbioz eta toberez hornituak, eta horietatik goiko aldean pilotutako mea tren bagoietara pasatzen zen. Tunelaren barrutik trenbide bat zihuan, bagonetak kargako toberen azpian kokatzeko.

El Coto Minero de Saratxo, en la localidad de Güeñes, fue explotado por la familia Lezama Leguizamón. Para dar servicio a este coto se construyó el puerto de mineral de Zaramillo, que hoy en día se encuentra en estado ruinoso. Este puerto, situado a pie del ferrocarril Bilbao-Santander, limita con los municipios de Güeñes y Barakaldo. Tanto el ferrocarril como el puerto se adaptan a la línea curva que en ese punto describe el río Cadagua. Desde el puerto de Zaramillo, el mineral era transportado por el Ferrocarril Bilbao-Santander hasta el cargadero que esta línea férrea utilizaba en los muelles de Zorroza. El puerto estuvo en funcionamiento hasta finales de los años sesenta.

Con una longitud de 1.000 metros y una capacidad de transporte de 55 toneladas por día, el puerto disponía de una línea de baldes monocable que permitía la bajada de mineral a su base. De estructura pétreo, con 130 metros de largo, de sillares y mampostería ligeramente ataluzada, servía para la carga de mineral en vagones del ferrocarril. Tiene forma de túnel de carga de tres metros de ancho y cuatro de altura que separan dos muros paralelos. Uno de estos muros presenta diez vanos de arco de medio punto enmarcados por sillares adovelados. Estos vanos proporcionaban acceso al personal y aireación en las operaciones de carga. Para ello dispone de un techo con bovedillas de hormigón con nervios metálicos y tolvas por donde se vertía el mineral depositado en la parte superior. En su interior un vial permitía la introducción de las vagonetas bajo las tolvas de carga.